

## LABek Formazioko Ikertzaileen mobilizazioekin bat egiten du

Formazioko Ikertzaileen kolektiboak kontratu mota aldatzearen ondorioz jasotako eraso salatzeko langile hauen Asanbladak (@predocasanblada) martxoaren 15erako deitutako **mobilizazio** deialdiekin bat egiten du LABek.

- **Mikel Laboa Plazan, Leioan, 11:30etan**
- **Gelategian (Barriola eraikina), Ibaeta-Donostian, 12:00etan**
- **Elurreta Gelategian, Gasteizen, 11:30etan**

LABek **gaia azaleratu zuenetik** behin eta berriz eskatu dio Unibertsitateari langile hauek sufritutako bidegabekeria ahalik eta lasterren zuzendu behar dela eta, bitartean, UPV/EHUri lan baldintzak mantenduko direla ziurtatzeko bermeak exijitu dizkio.

Baina atzera buelta ez da nahikoa. **LABen ustez, arazo honen betiko konponketa etorriko da Eusko Jaurlaritzak Zientzia Legean definitutako ikertzaileen kontratu laboral guztiak arautzetik -ez bakarrik doktoretza aurrekoak-, Irakasle-Ikertzaileen dekretua eguneratuz.** Bide horretan lanean jarraituko dugu.